



LAUGARREN laguntza zuzena, gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialerako eskubiderik ez duten errepideko garraioko enpresentzat 5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa

Ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez, gasolio profesionala erabiltzearen ondorioz hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa partzialaren onuradun izan ezin diren errepideko garraioko enpresei zuzenduta dagoen zenbait energia produkturen prezioa ordaintzeko aparteko eta aldi baterako laguntza berri bat onetsi da (5/2023 Errege Lege Dekretua, ekainaren 28koa, hainbat neurri ezarri eta luzatzen dituen, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko, eta La Palma uhartea berreraikitzen eta beste kalteberatasun egoera batzuei erantzuten laguntzeko; Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiten duena, merkataritza sozietateen egitura aldaketei eta gurasoen eta zaintzaileen familia bizitza eta lanbide bizitza uztartzeari dagokienez, eta Europar Batasuneko Zuzenbidea betearazi eta betetzen duena).

ONURADUNAK

Laguntza horren onuradun izan daitezke langile autonomoak eta Espainian legez eraturako nortasun juridikoko sozietateak, baldin eta 2023ko ekainaren 30ean (5/2023 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zen eguna):

1. VDE, VT, VTC, VSE, MDPE eta MDLE motetatik edozeinetako garraio baimen baten titularrak badira eta Garraioko Enpresen eta Jardueren Erregistroan alta emanda badaude.

Ondorio horietarako, titularrak izango dira 2023ko ekainaren 30ean Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroan alta emanda daudenak, baldin eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak bidali baditu garraiolariaren IFZren informazioarekin, titular den lizentzia motarekin, ibilgailu kopuruarekin eta sailkapenarekin batera.

Garraio Enpresen eta Jardueren Erregistroarako estekaren berri ematen da, zeinean egiazta baitaitezke indarrean dauden titulu gaitzaileak (jarduera egiteko baimenak, erkidegoko lizentziak, lanbide gaitasuna, segurtasun aholkulariak eta gidariaren kualifikazioa), bai eta erregistroan inskribatutako ibilgailuen berri ere, Lurreko Garraioen Antolamenduari buruzko uztailaren 30eko 16/1987 Legearen 53. artikuluan ezarritakoaren arabera.

<https://www.mitma.gob.es/transporte-terrestre/servicios-al-transportista/consulta-al-registro-de-empresas-y-actividades-de-transporte>

2. Hiri autobusen titular badira, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren erabilera irizpideen araberako sailkapenarekin bat etorriz, eta 2023ko ekainaren 30ean alta emanda bazeuden Trafiko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan.



Horren ondorioetarako, hiri autobusen titularrak izango dira Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren erabilera irizpideen arabera sailkapenarekin bat etorriz 2023ko ekainaren 30ean alta emanda zeudenak Trafiko Buruzagitza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan, baldin eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak bidali baditu. Onuradunek EJSN kode hauetan sartzen den jarduera bat egin beharko dute:

EJSN kodea	Jarduera A) GARRAIOAK
4932	Taxi bidezko garraioa
4939	Bidaiarien lurreko garraio motak b.i.s.g.
4941	Salgaien errepideko garraioa
4942	Etxe aldaketako zerbitzuak
8690	Pertsonen garraio sanitarioko zerbitzua
4931	Bidaiarien hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa

Ezin dute laguntzen onurarik jaso inolaz ere Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioz Europar Batasunak ezarri ahal izan dituen zehapenen eraginpeko pertsona fisikoek edo sozietateek.

LAGUNTZAREN ZENBATEKOA:

Laguntzaren banakako zenbatekoa zehazteko, onuradun bakoitzak ustiatutako ibilgailu kopurua eta mota hartuko dira kontuan, baldin eta erabilera profesionaleko gasolioagatik hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketaren partzialaren onuradun izan ezin bada, honako taula honen arabera:

Ibilgailua	Zenbatekoa (eurotan)
Salgaien ibilgailu astuna. Kamioia. MDPE, BGM \geq 7,5 t eta PGL, GNK edo GNL erregai mota.	1.845
Salgaien ibilgailu astuna. Kamioia. MDPE, BGM $<$ 7,5 t	500
Salgaien ibilgailu arina. MDLE furgoneta	225
Anbulantzia VSE.	225
Taxiak. VT, erregai mota hauekin: PGL, GNK edo GNL .	205
Taxiak. VT, erregai mota honekin: gasolina	150
Alokairuko ibilgailua, gidariarekin. VTC	150
Autobusa. VDE eta erregai mota hauek: PGL, GNK edo GNL	1.025
Hiriko autobusa, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorreko erabilera irizpideen arabera sailkapenaren arabera, eta erregai mota PGL, GNK edo GNL.	1.025

Laguntza hori bateraezina da gasolio profesionala erabiltzearen ondoriozko hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketaren onuradunentzako laguntzarekin; beraz, laguntza ez zaie aplikatuko itzulketaren horretarako eskubidea duten ibilgailuei.



PROZEDURA

Onuradunek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez elektronikoki eskatu behar dute laguntza, horretarako prestatutako formularioaren bidez.

Eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte eskaerarekin batera:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, zeinean berariaz jaso beharko baita laguntza eskatu duen pertsonarengan eragin ekonomikoa izan dutela Ukrainaren inbasioak eragindako ondorioek, nazioarteko komunitateak Errusiaren aurka ezarritako zehapenek edo Errusiak hartutako kontraneurriek.

2. Europako Ukraina Aldi Baterako Esparrua edo Europako Batzordeak onetsitako Aldi Baterako Esparru Nazionala aplikatuz jasotako beste edozein laguntzaren adierazpen idatzia. Era berean, diruz lagundu daitezkeen kostu berberetarako honako hauen arabera jaso dituzten laguntzak adierazi beharko dituzte: minimis erregelamenduak, Kategorien arabera Salbuespenen Erregelamendua, COVID-19ari buruzko Aldi Baterako Esparrua eta, ohiz kanpoko gertakariak eragindako kalteak konpontzeko, Errusiak Ukraina inbaditzearen ondorioz Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.2.b) artikulua aplikatuz jaso ahal izan dituzten laguntzak.

3. Idatzizko adierazpen bat, haiekin lotura duten eta bazkide diren enpresak identifikatzeko.

4. Horrez gain, eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute baimendutako gehieneko zenbatekoa gainditzen dutenean, Europako Ukraina Aldi Baterako Esparrua edo Aldi Baterako Esparru Nazionala aplikatuz, bai eta minimis erregelamenduen, kategorien arabera salbuespenen erregelamenduen eta COVID-19ari buruzko Aldi Baterako Esparruaren arabera jaso dituzten diruz lagungarri diren kostu berberetarako laguntzei buruzkoa eta Errusiak Ukraina inbaditu izanaren ondorioz Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107.2.b) artikulua aplikatuz ohiz kanpoko gertakariak eragindako kalteak konpontzeko jaso ahal izan dituzten laguntzei buruzkoa ere.

Lehen adierazitako erantzukizunpeko adierazpenak eskaerarekin batera aurkeztuko dira. Eskaera 2023ko irailaren 18tik urriaren 31ra bitartean aurkeztu ahal izango da.

ADMINISTRAZIO ESKUDUNA

Arabako Foru Aldundiak eta Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritzak izapidetuko dituzte laguntzak.

LAGUNTZAREN MUGA

Jasotako laguntzaren zenbatekoak ezin du gainditu onuradun bakoitzeko laguntzaren zenbateko mugatuko laguntzetarako aurreikusitako gehieneko zenbatekoa, Europako Ukraina Aldi Baterako Esparruaren arauen arabera onetsitako erabakiekin bat etorritik.